eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# UNIBERTSITATEKO KLAUSTROA BERRITZEKO HAUTESKUNDEAK: 3. FASEA.

## BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEA

Botoa aldez aurretik eman daiteke azaroaren 27, 28 eta 29an. Hauteskunde batzordeak ziurtagiria eman beharko die botoa aldez aurretik ematen dutenei (honi erantsita doa eredua).

Ikastegiei atxikitako administrazio eta zerbitzuetako langileek, irakasle eta ikertzaile iraunkor ez-doktoreek eta gainerako irakasle eta ikertzaileek ikastegian bertan eman ahal izango dute botoa aldez aurretik, campus bakoitzeko hauteskunde batzordeak zehaztutako prozedurari jarraituz (barruti bakoitzeko hauteskunde batzordeak **azaroaren 25ean** egingo duen bileran zehaztuko da noren aurrean eta zein ordutegitan emango den botoa aldez aurretik).

Botoa emateko, boto txartel ofiziala erabiliko da gutun azal ofizial itxian sartuta. Gutun azal itxi hori eta NANaren, pasaportearen, gidatzeko baimenaren edo unibertsitateko txartelaren fotokopia bat **beste gutun azal batean** sartu beharko dira, eta mahaiko buruari zuzendu. Gutun azal horren kanpoaldean boto emailearen izen-abizenak eta taldea adierazi beharko dira, eta boto emaileak hegalean sinatu ondoren zinta itsasgarriaz itxi beharko da.

**Boto horiek hauteskunde mahaiko buruari bidaliko zaizkio botazioaren egun berean.**

Behin botazioa amaituta, horrela emandako botoak boto kutxan sartuko dira, boto emailea erroldan dagoela egiaztatu ondoren. Hala ere, botoa aldez aurretik eman arren hautesleak berriro eman badu botoa hauteskunde egunean, edo hautesle izateko eskubidea galdu badu, aldez aurretik emandako botoa baliorik gabe geratuko da eta ez da kutxan sartuko.

Botoa aldez aurretik emateko, beharrezkoa da boto emailea bera joatea botoa ematera, eta jakina, ezinbestekoa da boto emailea erroldan egotea.

Ikastegi gehienetan, Klaustrorako hauteskundeez gain, ikasleek ikastegietako batzarretan dauzkaten ordezkariak aldatzeko hauteskundeak ere egingo dira. Horrexegatik, boto emaileak botoa aldez aurretik eman nahi badu hauteskunde bietarako, bi gutun azal desberdin erabili beharko ditu, bata Klaustrorako eta bestea Ikastegiko Batzarrerako.

Gogoan izan Klaustrorako eta Ikastegiko Batzarrerako hauteskundeetan botoa aldez aurretik emateko txartelekin batera banatuko diren gutun azalak izan behar direla botazioaren egunean (**abenduaren 4an**) erabiliko diren gutun azalen berdin-berdinak.

**BOTAZIO EGUNA**

**a) Botoa emateko ordutegia:**

Hauteskunde mahaia **10:00etatik 18:00etara** egongo da zabalik. Mahaia eratzeko zein botoak zenbatzeko, beharrezkoa izango da kide guztiak bertan egotea, baina, kontuan hartuta ordutegia luzea dela, bazkaltzeko orduan txandak egin ahal izango dituzte. Dena dela, mahaian gutxienez bi kide egon beharko dira tarte horretan.

**b) Hautagai zerrendetako ikuskariak:**

Hautagai zerrendek **azaroaren 27ko 12:00ak** arteko epea dute ikuskariak eskatzeko. Eskaririk badago, Idazkaritza Nagusiak ikuskariak izendatuko ditu eta izendapen agiriak emango dizkie (bina kopia). Ikuskariak aleetako bat mahaiko buruari emango dio eta hark mahaia eratzeko aktari eta botazioaren gorabeheren aktari erantsiko die.

Ikuskariak botazioa hasteko ordua baino 30 minutu lehenago egon beharko dira gelan, hau da, goizeko 9:30erako. Mahaiburuak ikuskarien agiriak jasoko ditu eta hala jasota utziko du mahaia eratzeko aktan eta botazioaren gorabeherak jasotzeko aktan.

Ikuskariak berandu badoaz eta heldu orduko mahaia eratzeko akta eginda badago, ezin izango dute prozesua ikuskatu.

**c) Zenbat denbora izango du hautesle bakoitzak botoa emateko?**

Eskola eta eskola artean 10 minutu eman daitezke (klase bakoitzetik 10 minutu hartuta), **abenduaren 4an** egun osoan barrena, botoa emateko.

**d) Mahaia eratu eta akta egitea**

Bozketa hasi baino ordu erdi lehenago hauteskunde mahaia eratu behar da, bere idazkaria izendatu behar du, eta hauteskunde mahaiaren akta eta botazioaren gorabeheren akta egiten hasi (bidalita daude akta bietarako ereduak, baina dokumentu honi ere erantsi dizkiogu). Era berean, mahaiak erabaki ahal izango du nola egingo diren ordezkapenak mahaikideren batek mahaia utzi behar duenean (adibidez, bazkaltzeko orduan). Gogorarazi nahi dugu, bestalde, ikasleek kreditua eta kreditu erdia amortizatu ahal izateko, frogatu beharko dutela egunaren erdia edo egun guztia egon direla fisikoki hauteskunde mahaian.

Hauteskunde mahai bakoitzak kabina bat edo toki gorde bat prestatuko du boto sekretua bermatzeko. Bertan hautagai zerrenda guztien txartelak eta gutun azalak egongo dira boto emaileen esku. Mahaiko kideek aldian-aldian egiaztatuko dute kabinan hautagai zerrenda guztien txartelak badaudela.

Boto txartel guztiak gutun azaletan sartu beharko dira.

Mahaiek posta elektronikoz konfirmatu beharko dute ondo eratu direla hurrengo helbidean: idazkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus

Hauteskunde mahaiak goizeko 10:00etan irekiko dira, eta bakoitzak bere barrutiko hauteskunde errolda izango du.

### e) Zer egin behar dute mahaiko kideek?

Botazioa hasita, mahaiko buruak egiaztatuko du boto emaile bakoitzaren identitatea eta begiratuko du ea erroldan dagoen.

Mahaikide batek erroldak markatuko ditu, eta beste batek boto emaile bakoitzaren izena idatziko du zerrenda zenbakidun batean. Horrela, botoak kontatzean zalantzarik sortuko balitz botoa eman dutenen kopuruaz, zerrenda hori egiaztabide izango litzateke.

Mahaiak behin egiaztatuta boto emailearen identitatea eta behin ziurtatuta erroldan dagoela, boto emaileak boto txartela kutxan sartuko du.

Botazioa amaitzeko ordua heltzean, mahaiko buruak botazioa amaitzera doala iragarriko du ozen, eta ez dio inori gehiago gelan sartzen utziko. Dena dela, barruan daudenetako batek artean botorik eman ez badu, utzi egingo dio botoa ematen. Hurren, aldez aurretik emandako botoak sartuko dira kutxan eta ikuskariek eta mahaikideek emango dute botoa.

Orduan mahaiko kideek botazioaren gorabeheren aktan jaso beharko dituzte egunean zehar gertatutako gorabeherak, halakorik egon bada. Eguna normal joan bada, ez da ezer adieraziko.

### f) Botoak zenbatzeko prozedura:

Botazioa amaituta, botoak zenbatuko dira ekitaldi publikoan. Behin boto guztiak zenbatuta, mahaiak erreklamazioak ebatziko ditu.

**BOTOAK MAHAIKO KIDEEK BAINO EZ DITUZTE ZENBATUKO; BERAZ, EZINGO DITU BESTE INORK UKITU EZ BOTO TXARTELAK EZ BOTO KUTXA.** Hautagaiak eta beren ikuskariak begiraleak baino ez dira; hau da, botazioaren gelan egon daitezke eta mahaiari eskatu ahal diote beren eskariak aktan jasotzeko, baina ezin dute botorik zenbatu.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

**Ikastegiek, Master eta Doktorego ikasleen hautestontziko botoak zenbatu ondoren, berehala bidaliko dute zenbaketa akta hurrengo helbidera: sec-academica.mde@ehu.es**

**Boto baliodunak, boto baliogabeak eta boto zuriak**

**Boto balioduntzat** joko da boto txartel ofizialean emandakoa, hautagai zerrenda bakarra ageri duena, izena ere adierazita (zerrendak izenik balu).

**Boto baliogabeak** izango dira:

a) Boto txartel ez ofizialetan emandako botoak edo oharren bat duten txarteletan edo izenen bat ezabatuta edo aldatuta dutenak.

b) Hautagai zerrenda bat baino gehiago adierazita dutenak (zerrenda bat baino gehiago daukaten txartelak direnean); gutun azalean txartel desberdinak sartuta dituztenak, edo, gutun azala nahitaezkoa izanda gutun azal gabe ontzian sartutakoak.
c) Gutun azal ez ofizialetan emandako botoak edo gorabeheraren bat dutenak edo txartel ez ofizialak dituzten gutun azaletakoak.

**Boto zuriak** izango dira:

a) Txartel ofiziala zuriz daukatenak.

b) Hautagai zerrendarik aukeratuta ez dutenak (zerrenda bat baino gehiago daukaten txartelak direnean).
c) Boto txartelik ez daukaten gutun azalak.

Aktak behin sinaturik, boto kutxetatik ateratako boto txartelak suntsitu egingo dira, ingurumena errespetatzen duten prozeduren bidez, boto baliogabeak dauzkatenak edo erreklamaziorik izan dutenak izan ezik. Horiek zenbaketaren aktari erantsiko zaizkio, erreklamatutako txartelak mahaiko kideek behin sinatuta.

Zenbaketaren akta **mahaiko kide guztiek sinatu behar dute**. Aktan honako datu hauek zehaztuko dira: hauteskunde barrutia, emandako boto kopurua, boto baliodunak, baliogabeak eta zuriak, hautagai zerrenda bakoitzak lortutako botoak eta proposatutako ordezkarien izenak. Era berean, izandako erreklamazioak, erabakiak eta gorabeherak ere jasoko dira, halakorik egonez gero.

Halaber, talde bakoitzerako hautetsien ordezkoak ere proposatuko dituzte, boto kopuruaren arabera ordenatuta, hautetsiren batek Klaustroko kide izateari uzten dionerako. Ordezkoen zerrenda hasiko da hautetsia izan ez den zerrendako lehenarekin, eta ordezko moduan agertzen den azkenarekin bukatuko da.

Mahaiek aktak sinatu bezain laster emango dituzte argitara emaitzak. Horretarako, aktak fotokopiatu eta ikastegietako hauteskunde oholetan eskegiko dituzte. Era berean, mahaiak

emaitzen berri emango dio Hauteskunde Batzorde Nagusiari **mezua bidaliz gorago emandako helbide elektronikoetara**.

Boto gehien bildu dituzten zerrendetako kideak proposatuko dira ordezkariak izateko, hondar handienaren sistema proportzionala erabiliz.

**Zelan esleituko zaizkie ordezkari kopuruak hautagai zerrendei?**

Hondar handienaren sistema erabiliz. Adibide bat jarri dugu **I. ERANSKINEAN**.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

# I. ERANSKINA

## Klaustroko ordezkarien banaketa, hondar handienaren sistemaz

Hautesle errolda: 120

Esleitutako ordezkariak: 6

Emandako boto kopurua: 118

Boto baliogabeak: 1

Baliozko botoak: 117

Boto zuriak: 1

Baliozko botoak = Emandako boto kopurua – boto baliogabeak

Ondoko formula hau erabiliko da koefizientea lortzeko:

$$\frac{\text{Baliozko botoak – Boto zuriak}}{\text{Ordezkari kopurua}} = \frac{116}{6}$$

Koefizientea = 19,33 (hamartar birekin kalkulatuko da)

Banaketa honakoa izango da:

| Hautagai zerrenda | Boto kop. | Zatidura | Ordezkariak | Gerakina | 2. banaketa |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 12 | 19,33 | 0 | 12 | 1 |
| 2 | 7 | 19,33 | 0 | 7 | |
| 3 | 5 | 19,33 | 0 | 5 | |
| 4 | 27 | 19,33 | 1 | 7 | 1 |
| 5 | 6 | 19,33 | 0 | 6 | |
| 6 | 26 | 19,33 | 1 | 6 | |
| 7 | 15 | 19,33 | 0 | 15 | 1 |
| 8 | 18 | 19,33 | 0 | 18 | 1 |

Lehenengo banaketan 4. eta 6. hautagai zerrendek ordezkari bana lortuko dute.

Bigarren banaketarako zenbaki osoak erabiliko dira. Horrela, bada, 4. eta 6. hautagai zerrendek 19,33 erabili dutenez lehenengo banaketan, 7,67 eta 6,67 geratuko zaie, hurrenez hurren; beraz, bigarren bueltarako zenbaki osoak baino ez direnez erabiliko, hondarra 7 eta 6 izango da, hurrenez hurren.

Horrela, 1., 7. eta 8. hautagai zerrendek ordezkari bana lortuko dute.

Ordezkari bat dago oraindik esleitu gabe, eta hautagai zerrenda bi geratzen dira banaketarako (hondarra: 7): 2. eta 4. zerrenda.

Berdinketa dagoenerako, Hauteskunde Arautegi Orokorreko 8. artikuluko 5. puntuan jasota dago zein irizpide erabili: boto gehien lortu duen hautagai zerrenda; hala ere berdinketa badago, zozketa egingo da.

Irizpide horien arabera, beraz, 4. hautagai zerrendak lortuko du ordezkaria, horixe izan baita boto gehien lortu duena.

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**BOTOA AURREtik EMATEA**

(Hauteskundeetako taldea eta ikastegiaren izena sartu)

**KLAUSTROA AUKERATZEKO HAUTESKUNDEAK- 2019**

**IKASTEGIAN BOTOA AURRETIK EMAN IZANAREN AGIRIA:**

Nik,....................................................jaunak/andreak,..............................................................eskolako/fakultateko Hauteskunde Batzordeko burua naizen aldetik, honakoa ziurtatzen dut ........................................................ jaunak/andreak, ........ko langilea denak, aurretik eman du botoa Klaustroa aukeratzeko hauteskundeetarako, lehen esandako ikastegian eta ni neu aurrean nengoela ..............................(e)an.

Izptua.: ...................................

**campuseko errektoreordetzan BOTOA AURRETIK EMAN IZANAREN AGIRIA:**

Nik,........................................................ jaunak/andreak,.......................... Campuseko administratzailea naizen aldetik, honakoa ziurtatzen dut: ........................................................ jaunak/andreak, ......ko langilea denak, aurretik eman duela botoa Klaustroa aukeratzeko hauteskundeetarako, errektoreordetza honetan eta ni neu aurrean nengoela, ..........................(e)an.

Izptua.: ...................................

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco  Euskal Herriko Unibertsitatea

# RENOVACIÓN DEL CLAUSTRO UNIVERSITARIO: 3ª FASE.

## DEPÓSITO DE VOTO

El depósito de voto se podrá hacer los días 27,28 y 29 de noviembre. La comisión electoral deberá expedir un certificado a todas aquellas personas que depositen su voto (se adjunta modelo).

El PAS, el PDI no doctor con vinculación permanente y el otro PDI adscrito a los centros podrá realizar, en todo caso, el depósito de voto en su centro, según el procedimiento que establezca la respectiva comisión electoral (en la sesión que la comisión electoral en cada circunscripción celebre **el 25 de noviembre** **se acordará la persona** ante quien se realizará y el horario en que podrá realizarse el mismo).

Dichos votos deberán ir en papeleta y sobre oficial cerrado que será introducido junto con una fotocopia del DNI, Pasaporte, Carnet de Conducir o Carnet de miembro de la comunidad universitaria en vigor **en otro sobre** dirigido a la Presidencia de la Mesa correspondiente indicando en el exterior el nombre y apellidos de la persona que emite el voto, así como, en su caso, el sector al que pertenece, debiendo firmar en la solapa que deberá ser precintada con cinta adhesiva.

**Esos votos deberán ser remitidos el mismo día de la votación a la presidencia de la mesa electoral correspondiente.**

Cerrada la votación, se procederá a la introducción en la urna de los votos así emitidos previa comprobación de su inscripción en el censo. Si alguno de estos votos correspondiera a alguien que haya emitido ya su voto personalmente o que hubiera perdido la condición de electora o elector, el depositado perderá su validez, no siendo introducido en la urna.

El Depósito de voto deberá realizarse personalmente por el o la votante inscrita en el censo electoral.

En muchos centros, junto con las elecciones al Claustro, se va a realizar la renovación del sector de alumnado en la Junta del centro. Por ello, si alguien desea realizar el depósito de voto para ambas elecciones deberá utilizar dos sobres diferenciados, uno para el Claustro y otro para la Junta de centro.

Se recuerda que los sobres que se entreguen junto con las papeletas para hacer el depósito de voto para las elecciones al Claustro y a la Junta de Centro, deben de ser **idénticos** a los que se utilicen el día **4 de diciembre** para la votación.

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea
eman ta zabal zazu

EL DÍA DE LA VOTACIÓN

## a) Horario de la votación:

La mesa electoral deberá permanecer abierta **entre las 10:00 y las 18:00 horas**. Deben estar presentes todos sus miembros tanto para la constitución como para el recuento, si bien, dado lo extenso del horario, en la hora de la comida se turnarán de modo que siempre haya un mínimo de dos miembros de la Mesa.

## b) Los interventores de las candidaturas:

Existe un plazo, hasta las **12.00 horas del día 27 de noviembre** para la solicitud de interventores por parte de las candidaturas. En caso de existir solicitudes en este sentido la Secretaría General nombrará los interventores de las candidaturas y expedirá su nombramiento por duplicado. Uno de los ejemplares se entregará por el interventor o interventora a la Presidencia de la Mesa y se adjuntará al Acta de Constitución y Desarrollo de la Mesa.

Las interventoras e interventores tienen que estar presentes 30 minutos antes de la hora fijada para el inicio de la votación, es decir, a las 9:30 horas. La Presidencia de la Mesa recibirá sus credenciales haciéndolo constar en el Acta de Constitución y Desarrollo.

Si se presentaran en la Mesa después de la hora señalada y una vez cumplimentada el Acta de Constitución, no podrán ejercer su función interventora.

## c) ¿Cuánto tiempo dispone el elector para ejercer su derecho al voto?

Se suele conceder 10 minutos entre clase y clase (restando 10 minutos a cada clase), a lo largo de todo el día **4 de diciembre** para poder ejercer ese derecho al voto.

## d) Constitución de la Mesa y elaboración del Acta:

Media hora antes de la apertura de la votación, la Mesa electoral debe constituirse, designar a su Secretario o Secretaria, y comenzar la redacción del Acta de Constitución y del Acta de Desarrollo de la sesión según los modelos que se adjuntan a este documento. Así mismo, podrán acordar cómo se realizarán las sustituciones en aquellas circunstancias en las que alguien deba ausentarse momentáneamente (hora de la comida, por ejemplo). Insistir que para poder solicitar el crédito o el ½ crédito para el alumnado es necesario acreditar una presencia material durante la jornada entera o la mitad.

Cada Mesa electoral debe habilitar una cabina de votación o espacio reservado, para garantizar el secreto del voto, donde las y los votantes tendrán a su disposición papeletas de todas las candidaturas y sobres. Los miembros de la mesa comprobarán periódicamente que haya papeletas de todas las candidaturas dentro de la cabina.

Todas las papeletas deberán introducirse en sobres.

Se ruega confirmar por correo electrónico a la dirección idazkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus la correcta constitución de las mesas electorales.

Las Mesas electorales abren a las 10:00 de la mañana, y tendrán a su disposición un censo electoral de su circunscripción.

## e) ¿Qué labor deben hacer los miembros de la Mesa?

Iniciada la votación, la Presidencia de la Mesa comprobará la identidad de cada elector o electora y la inclusión de este en el censo electoral.

Un miembro de la Mesa punteará los censos, y otro deberá escribir el nombre del votante en una lista numerada, de manera que, si a la hora de hacer el recuento hubiera alguna duda sobre el número final de votantes, se cuente con los medios adecuados para hacer comprobaciones.

El votante o la votante, una vez comprobada por la Mesa su inclusión en el censo correspondiente, y acreditada su identidad, depositará la papeleta en la urna.

A la hora fijada para el cierre de la sesión de la votación, la Presidencia de la Mesa anunciará en voz alta que va a concluir la votación y no permitirá entrar a nadie más en el local. Se permitirá, no obstante, a los presentes, si alguno no ha votado todavía, que emitan su voto. A continuación, se introducirán en la urna los votos depositados y emitirán su voto las interventoras e interventores y la Mesa.

En ese momento los miembros de la Mesa cumplimentarán la parte del Acta de Desarrollo de la sesión en la que deben hacer constar los incidentes que se hayan producido durante la jornada. Si no se hace constar nada significará que la jornada se ha desarrollado con normalidad.

## f) El recuento de los votos:

Terminada la votación se procederá en acto público al escrutinio de los votos. Al finalizar el escrutinio la Mesa resolverá todas las reclamaciones que se presenten.

**EL ESCRUTINIO DE LOS VOTOS DEBERÁ HACERSE EXCLUSIVAMENTE POR LAS Y LOS MIEMBROS DE LA MESA, SIN QUE NADIE MÁS PUEDA ACCEDER A LA URNA NI A LAS PAPELETAS**. Las candidaturas y sus interventores son observadores, y como tales pueden además de estar presentes, pedir a la Mesa que recoja en las actas sus peticiones, pero no participar en el recuento.

**En los Centros, tras el recuento de los votos de la urna de alumnado de Máster y Doctorado, se remitirá inmediatamente el acta de escrutinio a la escuela de máster y doctorado, a la siguiente dirección**: sec-academica.mde@ehu.es

**Votos válidos, votos nulos y votos en blanco**

Tendrán la consideración de **voto válido** el emitido en papeleta oficial figurando una única candidatura en su totalidad, incluyendo su denominación si la tuviere.

Tendrán la consideración de **voto nulo:**

a) Las papeletas no oficiales y las que contengan anotaciones, tachaduras o alteraciones.

b) Las que señalen más de una candidatura en el caso de papeletas múltiples, así como las que se emitan en papeletas sin sobre, cuando éste sea necesario, o en sobre que contenga papeletas con distinta candidatura.

c) Los votos emitidos en sobres no oficiales o en los que se presente cualquier tipo de alteración o en sobres que no contengan papeletas oficiales.

Tendrán la consideración de **voto en blanco:**

a) Los emitidos en papeleta oficial en blanco.

b) Los que no contengan indicación a favor de ninguna de las candidaturas, en el caso de papeletas múltiples.

c) Los sobres que no contengan papeleta alguna.

Firmadas las actas las papeletas extraídas de las urnas se destruirán, por procedimientos medioambientalmente sostenibles, con excepción de aquellas que contengan votos nulos o que hayan sido objeto de reclamación, las cuales se acompañarán al Acta de Escrutinio, una vez rubricadas (las papeletas reclamadas) por las y los miembros de la Mesa.

El Acta de Escrutinio **debe ser firmada por todos los miembros de la Mesa**. En el Acta se especificarán los datos de circunscripción electoral, el número de votos emitidos, el de papeletas válidas, nulas y en blanco, los votos obtenidos por cada candidatura y los nombres de las y los representantes electorales propuestos y expresarán las reclamaciones, acuerdos e incidencias, si hubiera lugar a ello.

Asimismo, se propondrán suplentes en el orden en que fueran votados con la finalidad de que sustituyan a las elegidas o elegidos de cada sector cuando dejen de pertenecer al Claustro. Esta lista de suplentes se comienza por el primer representante de la candidatura que no haya sido elegido y se acaba con el último nombre de los que figuran como suplentes.

Las Mesas harán públicos los resultados inmediatamente después de firmadas las Actas, mediante fotocopia de éstas, que fijarán en los tablones electorales de los centros. Así mismo, notificarán **en la dirección de correo electrónico antes facilitada** el resultado a la Comisión electoral general.

Serán propuestas o propuestos representantes electos los integrantes de las candidaturas más votadas siguiéndose en el cómputo de votos el sistema proporcional de resto mayor.

### ¿Cómo se asignan los representantes Claustrales a las diferentes candidaturas?

Por el sistema proporcional de resto mayor, cuya aplicación se realizará según el ejemplo que se adjunta como **ANEXO I**.

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# ANEXO I

## Asignación de representantes Claustrales por el sistema proporcional de resto mayor

Censo electoral: 120

Representantes Claustrales asignados: 6

Votos emitidos: 118

Votos nulos: 1

Votos válidos: 117

Votos blancos: 1

Votos válidos = votos emitidos - votos nulos

Para hallar el cociente electoral se aplica la siguiente fórmula:

Votos válidos- Votos blancos = 116

Nº representantes 6

Cociente = 19,33 (el cociente se calcula con dos decimales)

El reparto será como sigue:

| Candidatura | Nº votos | Cociente | Representantes | Resto | 2ªdistibución |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 12 | 19,33 | 0 | 12 | 1 |
| 2 | 7 | 19,33 | 0 | 7 | |
| 3 | 5 | 19,33 | 0 | 5 | |
| 4 | 27 | 19,33 | 1 | 7 | 1 |
| 5 | 6 | 19,33 | 0 | 6 | |
| 6 | 26 | 19,33 | 1 | 6 | |
| 7 | 15 | 19,33 | 0 | 15 | 1 |
| 8 | 18 | 19,33 | 0 | 18 | 1 |

En la primera distribución las candidaturas 4ª y 6ª obtienen cada una un representante.

En la segunda distribución, las operaciones se hacen sólo con números enteros. Así que las candidaturas 4ª y 6ª, como han utilizado 19,33 en el primer reparto, se quedan con restos de 7,67

y 6,67 respectivamente, por lo que al hacerse las operaciones con números enteros y no fracciones pasan a tener de resto 7 y 6, respectivamente.

Por ello, las candidaturas 1ª, 7ª y 8ª obtienen un representante cada una.

Resta por asignar 1 representante, para el cual hay dos candidaturas - la 2ª, y la 4ª- con un resto de 7.

En el caso de empate el artículo 8 del Reglamento de régimen electoral general en su punto 5 establece dos criterios de desempate: el de la candidatura más votada y si también hay empate en el número de votos, el sorteo.

Aplicando estos criterios la candidatura 4ª obtiene el último representante, al haber sido la más votada.

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

## DEPÓSITO DE VOTO

## (Introducir el nombre del sector electoral y del centro/Campus)

ELECCIONES A CLAUSTRO UNIVERSITARIO - 2019

### JUSTIFICANTE DE DEPÓSITO DE VOTO EN CENTRO:

D./Dña.: ..........................................................................., en su calidad de Presidente de la Comisión electoral del centro: ............................................................, Certifica que D./Dña.: ....................................................., con D.N.I. nº ...................................... perteneciente al sector electoral.........., ha depositado su voto para las elecciones a Claustro Universitario ante mí en este Centro en fecha ..........................

Fdo.: ....................................

### JUSTIFICANTE DE DEPÓSITO DE VOTO EN CAMPUS:

D./Dña.: ........................................................., administradora del Campus de ............... Certifica que D./Dña.: ....................................................., con D.N.I. nº ...................................... perteneciente al sector electoral ......, ha depositado su voto para las elecciones a Claustro Universitario ante mí en este Vicerrectorado en fecha ..........................

Fdo.: ....................................